

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzurako hainbat funtsezko baliabide beharko ditugu. Bertan gure zerbitzuari bakoitzak eskaini diezaiokeguna zehaztuko dugu, hau da, bakoitzak zerbitzua aurrera eramateko bere aldetik eskainiko duena.

Hasteko, baliabide fisikoei dagokienez, gure proiektua aurrera eramateko finantza baliabideak eskuratu beharko ditugu. Negozio bat hasterako garaian ezinbestekoa da sarrerako diru kantitate zehatz bat izatea, hots, hasierako inbertsio bat, hasiera emateko eta baita zerbitzuarekin jarraitu ahal izateko. Honi esker errazagoa izango da gure zerbitzua martxan jartzea, eta arazorik edo ezustekorik sortuko balitz dirua eskuragarri izango genuke. Baina horretaz urruti, mailegu bat ere eskatuko dugu eta Gobernuaren laguntza ere izango dugu. Gainera, harremanetan jarriko gara baita ere horrelako ideia iraultzaileak finantzatzeko prest dauden erakundeekin.

Bestalde, gailu teknologikoei dagokienez, bakoitzak aurretik badituen tresnak erabiliko ditugu: ordenagailua, mugikorra eta inprimagailua. Gure proiektua abian jartzeko ezinbestekoak dira. Alde batetik, ordenagailua funtzio gehienetarako erabiliko dugu, baina gehienbat aplikazioaren sorrera eta mantenimendua aurrera eramateko balio du. Beste alde batetik, komunikaziorako, hau da, sare sozialak eguneratuta edukitzeko, informazioa zabaltzeko, negozioaren bezeroekin eta edozein partaiderekin harremanetan jartzeko, edozein momentuan aplikazioaren egoeraren berri eduki ahal izateko, ... Inprimagailua berriz, ez da tresnarik garrantzitsuena; hala ere, kontuak eta bestelako informazioa fisikoki eta eguneratuta edukitzeko erabiliko dugu.



Gure proiektua bakoitzak egingo duen lan pertsonaletik eta bakoitzak dituen abilezietatik abiatuko da. Horregatik, baliabide fisikoak alde batera utzita, orain giza baliabideetan oinarrituko gara: Lehenik, Nagorek ekonomiari buruzko ezagutzak eskainiko ditu, oso garrantzitsua baita ditugun kostuak eta diru-sarrerak ondo antolatuta edukitzea. Bigarrenik, Eiderrek informatikari, aplikazioen sorrerari eta aplikazioen mantenimenduari buruz dakien informazio guztiaz baliatuko gara, bere



zaretasunetako bat baita. Azkenik, Anneren ezaugarri aipagarrienetako bat jendearekin komunikatzeko duen ahalmen handia da. Horretaz gain, gure zerbitzua jendearen aurrean aurkezteko eta eskaintzen ari den pertsona konbentzitzeko abilezia du. Gainera, publizitate munduan oso interesatuta dago; horregatik, sare sozialen kudeaketaren arduraduna izango da.

ETS